


# AHOZKO KOMUNIKAZIOA ETA ELKARRERAGINA ARLOETAN



# AURKIBIDEA

Sarrera	<b>3</b>
1. Ikasleei egunero hitz egiteko aukera anitzak eman	<b>4</b>
2. Ikasleei argibide esplizituak eman hitz egiteko estrategiak eta trebetasuna garatu ditzaten	<b>5</b>
3. Elkarlanak eta elkarreragitea	<b>7</b>
3.1. Binakako lana	<b>8</b>
3.2. Talde txikietan	<b>10</b>
3.3. Talde osoan	<b>16</b>
4. Eranskina: Adibide batzuk	<b>19</b>

---

## SARRERA

---

Ahozko komunikazioa garatzeko programa eraginkor batek honakoa hartu behar du kontuan: input ulergarria, hitzezko elkarreragina, testuinguru batean sartutako hizkuntza, larritasun-murrizketa, eta partaidetza aktiboa. (Herrell, 2002).

Klaseko mintzamenak ikasleei laguntzen die zenbait aspektutan: kontzeptu berriak ikasten, ikasten ari direnari buruz hausnarketa egiten, eta bere ezagutza eta ulertzea komunikatzen. Hemen aurkezten diren estrategiak sinpleak dira baina laguntzen dute edozein klasetan edo arlotan komunikazioa hobetzen eta elkarreragina lantzen.

Ikasleek benetako aukerak behar dituzte hainbat egoeratan – binaka, talde txikietan eta talde handian, nola hitz egin eta entzun era eragingarrian ikasteko. Ikasleek batzuetan ahozko jarduera bat burutu behar dute argi ulertu gabe zer espero den haiengandik eta nola burutu dezaketeen egokiago. Denbora hartzen badugu ahozko estrategiak irakasteko gure arloaren testuinguruan, ikasleen konfiantza eta errendimendua bultzatuko dugu.

### **Irakas-hizkuntza ikasten ari diren ikasleek behar dute:**

- ❖ *Ikasle helduberriek denbora behar dute hizkuntza berria bereganatzeko (badago onartutako “isil-aldia”, aldi honetan ikasleek erabiltzen duten hizkuntza baino gehiago ulertzen dute - hau desagertuko da uste handia badute beren buruengan.*
- ❖ *Motibazioa eta instruzio esplizitua haien konpetentziak garatzeko eta beren beharrei erantzuteko.*
- ❖ *Inguru seguru eta motibagarria ahozko praktikarako.*
- ❖ *Praktika gehigarria, aldamiaje, kide bat lan egiteko, edota irakaslearen laguntza ahozko aurkezpenak egin aurretik.*
- ❖ *Ondo aukeratutako ikaskideak edo taldekideak ezagupena, konpetentziak eta estrategien eredu egokiak izateko.*

## Elkarrekin lanean:

### Binakako lana

Ikasle askorentzat modu eroso izan daiteke talde handiagoetan parte hartzeko beharko dutena praktikatzeko. Bestalde, estrategia asko ondo praktikatu daitezke binaka.

### Lana talde txikietan

Talde txikietan eztabaidatzeko teknika egokiak modelatzen baditugu (praktika bitartean ahoz azaldu) eta teknika hauek testuinguru seguru batean praktikatzeko aukera nahikoak eskaintzen baditugu, ikasleak gusturago sentituko dira.

### Talde osoko lana

Ikasleek errazago ikasten dute gelan elkarlana eta kidetasuna bizitzen badute.

Elkarlaneko ikasketa-metodoa egokia da bigarren hizkuntza ikasten ari diren ikasleentzat.

Elkarlaneko atazek ikaskideen elkarreragiketa bultzatzen dute, honek hizkuntzaren garapena eta kontzeptu eta edukien ikasketa errazten du. Garrantzitsua da irakas-hizkuntzaren ikasleei hainbat taldetan egoteko aukera izatea hizkuntza eredu desberdinak izan ditzaten.

### Elkarlanean aritzean sortu daitezkeen arazo batzuk konpontzen:

Arazoa	Irtenbidea
Ikasle guztiak ez daude inplikaturik	Eman eginkizun zehatzak partaide guztiei
Taldeak zaratsuegiak dira	Ikasleak hurbilago jartzen dira
Taldekideek "disimulatu" egiten dute	Motibatze teknika erabili pertsona guztiek haien ekintzen ardura hartu dezaten (birgogoratu bai taldearen partaidetza bai bakoitzaren lana kontuan izango dela)
Lana motela eta osatu gabea da.	Lan egin ikasleekin helburuak jartzeko egun guztietarako. Ikasleek proiekturako denbora-marra prestatzen dute eta bete egiten dute.

---

## 1. IKASLEEI EGUNERO HITZ EGITEKO AUKERA ANITZAK EMAN

---

### **Gelako errutinak**

Ikasleek egunero hitz egin behar dute ideiak, informazioa... komunikatzeko. Honako adibideak eguneroko klaseetan sartu daitezke erraz:

---

### **1. Ikasleak klasea hasten dira:**

Pentsatu hainbat era ikasle bat edo bi ikasle klasea hasteko:

Gaiarekin zerikusia duen aipamena ekar dezaten eta 5-10 minutuko solasaldia izan. Gai hauek erabili daitezke:

- Aurreko eguneko saioa laburbildu.
  - Irakurgaiaren hitz berri bat aurkeztu eta definitu.
  - Irakurgaiaren zati interesgarria edo oroigarria azpimarratu.
- 

### **2. Goizeko solasaldiak/ Parte hartzeko zirkulua:**

- Ikasleak berri pertsonalak edo ikasten ari diren gaiari buruzko ideiak eta iritziak komunean jartzen dituzte goizaren lehengo minutuetan.
- 

### **3. Berriak/Berri erreportaia:**

- Ikasleak bai eskolako eta auzoko berriak bai nazio eta nazioarteko berriak komentatzen dituzte oinarrizko galderak erabiliz: Nork?, Zer?, Non?, Noiz?, Zergatik?, Nola?
- 

### **4. Ahozko aurkezpenak:**

- Ikasleek ahozko aurkezpenak egunero egiten dituzte txandakatuz.
  - Banan, binaka, edo talde txikietan ikasleek zein irakasleek proposatutako gaiak aurkeztu ditzakete.
-

## 5. Klaseko batzarra:

- Ikasleek klaseko bileretarako gaiak proposatzen dituzte.
- Ikasleek eta irakasleek elkarrekin lan egiten dute arazoak konpontzeko eta ikasleei interesatzen zaizkien gaiak edo kezkek aurrera ateratzeko. Kutxa batean sartu daitezke proposamenak

---

## 2. IKASLEEI ARGIBIDE ESPLIZITUAK EMAN HITZ EGITEKO ESTRATEGIAK ETA TREBETASUNA GARATU DITZATEN

---

### Klaseko solasaldiak eta protokoloa

- Irakasleek eta ikasleek elkarrekin lan egin behar dute solasaldietarako arau zerrenda bat osatzeko. Gomendatzen da solasaldietarako protokolo hau kurtso hasieran eztabaidatzea. Ikasleek arauetan parte hartzen dutenean eta hasieratik ulertzen dituztenean arloko eztabaidak adeitsuagoak eta emankorragoak izango dira.
- Aukera anitzak eskaini klasean eta talde txikietan gai askori buruz mintzatzeko.
- Ereduak eskaini eta hitz egiteko estrategia egokienei buruz eztabaidatu. Bultzatu hizkuntza inklusiboaren erabilera eguneroko praktikan. Baliatu eguneroko aukeraz egoera ez-formaleko lagunarteko hizkera eta klaseko solasaldien hizkera formagoaren diferentziak seinalatzeko.
- Ikasleek eta irakasleek kontuan hartu behar dituzte nola arau kulturelek eragina izan dezaketen solasaldi-ereduetan, hau da, hurbiltasun fisikoan, begi kontaktuan...
- Klaseko solasaldietarako hizkera egokia eta desegokiaren adibideak eman, txarteletan eredu egokiak idatzi daitezke: Adibidez

**Desadostasuna adierazteko egitura egokiak:**

Ez nago ados .....arekin (e)lako.

Ez nago konforme. Nire ustez,

Zalantzak ditut (e)lako.



**Desadostasuna adierazteko egitura desegokiak:**

Ez dakizu ezer horretaz.

Hori bai dela astakeria!

Txantxetan zabilta, ala?

- Txartelak edo posterrak eskegi daitezke gelan lortutako ideiekin . Adibidez

**Gure Natur Zientzietako klaseko solasaldietan,  
guk hitz egiten dugunean:**

Txandak errespetatzen ditugu

Elkarri kasu egiten diogu

Ozenki hitz egiten dugu

Hitz adeitsuak erabiltzen ditugu

Gauza garrantzitsuak ordenean adierazten ditugu

**Guk hitz egiten dugunean:**

Hizkuntza inklusiboa erabiltzen dugu

Ziurtatzen dugu denok entzuteko prest daudela

Gaia mantentzen dugu

Frogabideak eskaintzen ditugu

**Ikasle batzuk behar dute:**

❖ *Talde osoaren solasaldietan “paso” egiteko aukera izan.*

- ❖ *Irakaslearen banakako laguntza inoiz parte hartzen ez badute.*
- ❖ *Bai/Ez galderak edo erantzun motzeko galderak hizkuntzaren lehengo mailetan badaude.*
- ❖ *Solasaldiaren puntuak idatzirik ikustea gaiari jarraitu ahal izateko.*

---

### 3. ELKARLANAK ETA ELKARRERAGITEA

---

Ikasleek aukerak izango dituzte banaka, binaka eta talde txikietan lan egiteko eta ideiak trukatzeko eta taldean sortutako ekoizpenak aurkezteko. Debateak, ahozko aurkezpenak, elkarrizketak, ikerketak, proiektuak, bisitaldiak, multimedia materialak... erabiliko dira elkarreragitea bultzatzeko. Hizkuntza berria ikasten ari diren ikasleek euskarria beharko dute egoera askotan: ikusizko laguntza, grafikoen laguntza, gorputz-mintzaira, ikaskideen elkararteko laguntza, irakaslearen laguntza, praktika gehiagarria, komunitatearen partaidetza... Hona hemen erabili daitezkeen estrategia batzuk:

---

### BINAKAKO LANA

---

#### 1. Pentsatu-elkartu-konpartitu:

- Irakasleak galdera bat egiten du, denbora uzten du bakoitzak isilik hausnarketa egiteko.
- Gero ikasleak binaka elkartzen dira erantzunak aztertzeke eta konparatzeko.
- Azkenik talde osoarekin konpartitzen dira erantzunak.

**Iradokizunak:** Ikasleekin hitz egiteko eta entzuteko konpetentzia egokiak finkatzen laguntzeko irakasleak jarduera modelatu dezake eta aipatu ditzake aproposak diren jarrerak elkarri entzutean eta hitz egitean. Irakasleak ikasleen elkarreraginak gidatu ditzake eta atentzioa bideratu dezake parte hartze egokietara.



Arlo guztietan erabili daiteke eta klaseko denboraldi motzez edo luzez. Estrategia hau galdera sinpleetarako edo landuagoetarako (hipotesiak...) erabili daiteke.

Birpasatu teknika hau erabiltzeko ikasleek behar dituzten konpetentziak: adi entzun, txandak mantendu, ikuspuntu anitzak errespetatu, argitzeko eskatu eta ideiak beste era batean esan. *Adibideak eranskinean ikusi (Orr. 20-21-22)*

**Hizkuntza berria ikasten ari diren ikasleentzat egokia izan daiteke:**

- ❖ *Ikaskide batekin elkartu baino lehen irakaslearekin solasaldi bat izatea ideiak artikulatzeko.*
- ❖ *Denbora nahikoa eman: ikasle batzuk bi bikotekide ezberdinekin elkartzen dira, beste batzuk denbora gehiago behar badute bikote batekin bakarrik elkartzen dira.*
- ❖ *Material gehigarriak eskaini: Hiztegi elebidunak, irudi-hiztegiak, esaldien hasierak eman, hutsune-testuak eman, multimedia, argazkiak...*
- ❖ *L1 erabiltzeko aukera eskaini: L1 bera duen beste kide batekin elkartu, L1 materialak erabili...*



---

**2. Bost minutu eman:**

- Binaka, ikasleek bost minutu ematen dute ahoz kontzeptu bat birpasatzen eta klasean aurkezten, normalean saio hasieran edo bukaeran. Aurkezpena horman jartzeko paper batean idatzi daiteke.
- Irakas-hizkuntza ikasleak H1 bera duen ikasle batekin elkartu daitezke kontzeptuak lehen hizkuntzan argitzeko.



### 3. Berriz kontatu:

- Galdera eztabaidagarri bat aukeratu. Ziurtatu ikasleek gaiaz oinarrizko ezagutza dutela.
- Ikasleak binaka jartzen dira.
- A ikasleak badu minutu bat gaiaren aldeko argumentuak adierazteko, B ikasleak entzuten duen bitartean.
- B ikasleak entzundakoa birkontatzen du minutu batean. Gero gaiaren aurkako argumentuak adierazten ditu.
- Bestearen argumentuak idatzi daitezke binaka eta taldeka komentatu daitezke.



---

#### 4. Parafraseatzeko pasaporteak:

Ikasleek bikoteak osatzen dituzte.

- Irakasleak problema edo galdera bat agintzen du.
- Ikasleek banan pentsatzen dute.
- Lehenengo kidea hizketan hasten da, bigarren kideak komentariarik egin gabe adi entzuten du.
- Lehengo kidea isildu egiten da.
- Bigarren kideak parafraseatzen du lehengoak esandakoa (lehengoak adi entzuten du oraingoan).
- Ikaskideek komentatzen dute parafraseatu dutenaren zuzentasuna. Paperak aldatzen dira.

---

#### 5. Elkarrizketa bi urratsetan:

- Ikasleek binaka lan egiten dute. Ikasleek beste ikaskideari entzuten diote galdera bati erantzuten.
- Gero aldatzen dira bikoteak eta elkarri kontatzen diote aurreko ikaskideak esandakoa.

---


### TALDE TXIKIETAN

---

#### 1. Elkarlaneko adituen taldeak:

- Ataza bat garatzeko taldeak egiten dira. Ataza zatitan banatzen da (1etik-4era); adibidez, ikasle bakoitzak testuaren zati bat lantzen du eta zati horren aditua izango da. Jatorrizko taldeak desegiten dira eta "adituen" taldeak osatzen dira.
- Talde berri hauek haien zatia ikertzen dute eta atazaren atal batean adituak dira. Aditu guztiak jatorrizko taldeetara bueltatzen dira eta taldean testu osoa izango dute aztergai adituen laguntzaz.

- **Hizkuntza berria ikasten ari diren ikasleak** adituen taldera bakarrik edo beste ikaskide batekin joan daitezke. Gomendatzen da ikasleak talde txikietan lan egiteko esperientzia izatea teknika honekin hasi aurretik.



## 2. Buru zenbakidunak batera:

- Puzzle erako irakurgai bezalakoa baina adituen taldea osatu gabe. Ikasleek badute zenbaki bat talde barruan.
- Ikasle bakoitzak zati bat lantzen du eta gero taldean komunean jartzen dute.
- Irakasleak zenbaki bat esaten du eta talde bakoitzean zenbaki hori duen ikasleak talde osoan kontatzen du.



## 3. Taldekideen zereginak:

Ikasle bakoitzak zeregina zehatza du taldean irakurtzen ari diren liburuari buruz edo testuari buruz, edo lantzen ari den gai bati buruz. Hona hemen adibide batzuk egokienak aukeratzeko:

*Eztabaida-zuzendaria:* Solasaldia errazten du eta ziurtatzen du kide guztiek aukera dutela galderei erantzuteko eta ideiak komentatzeko. Feedback positiboa ematen dio kide bakoitzari.

*Ilustratzailea:* Pasarte oinarrizkoak irudien edo grafikoaren bidez adierazteko ardura du.

*Konektorea*: Istorioa esperientzi pertsonalekin konektatzen du edo gaia errealitatearekin lotzeko ardura du.

*Gai-egituratzailea*: Landutako gaia puntuz puntu apuntatzen du. Materialak biltzen ditu eta denbora kontrolatzen du.

*Erreportaria*: Taldearen ideiak talde osoan kontatzen ditu.

*Zalantza-argitzailea*: Zalantzak sortzen direnean hiztegiari buruz edo edukiei buruz kontsultak egiteko eta gauzak argitzeko ardura du.




- Ikasle bakoitzak ebaluazio-orri bat bete dezake bukaeran.
- Garrantzitsua da paperak aldatzea, baina ikasle bakoitzaren beharrak eta zailtasunak ere kontuan hartu behar dira paperak banatzean. (*Gidarako begiratu eranskina orr.23*)

---

#### 4."Consensus"-elkarlana:


- Ikasleak launaka elkartzen dira gai bat eztabaidatzeko. Kide bakoitzak badu bere txanda bere iritzia emateko edo gaiaz zerbait esateko. Taldekide guztiak esandakoarekin ados badaude erdian idazten dute, bestela pertsona bakoitzak duen tokian (ez erdian) idazten da.
- Gero gela osoak komunean jartzen ditu erdian idatzitako ideiak, toki indibidualetan idatzitakoa ere komentatu daiteke denbora badago edo egokia bada. *Adibideak eranskinean ikusi (Orr. 24-25-26)*



---

## 5. Informazio-hutsune ariketak:

- Taldearen ikasle bakoitzak badu problema edo puzzlea konpontzeko beharrezkoa den informazio zati bat (mapak, irudiak, taulak ...erabili daitezke) .
- Ikasleek elkarrekin lan egin behar dute eta informazioa komunean jarri behar dute.



---

## 6. Banatutako baliabideak komunean:

Teknika honekin taldekide bakoitzari banatzen zaizkion baliabideak mugatzen dira, horrela taldekideek materialak konpartitu behar dituzte eta elkarlan egin behar dute.

- Irakasleak taldekide bakoitzari hainbat baliabide banatzen dio ataza bat burutu ahal izateko: bati galdera-orria, beste bati erabili behar duten mapa, beste bati argibide-orria, komunean erabili behar duten boligrafoa eta abar.

---

## 7. Mahai inguruaren papera pasa:

- Galdera bat egiten da. Ikasleak launaka edo bosnaka daude.
- Talde barruan papera ikasle ikasle pasatzen da, bakoitzak bere erantzuna idatzi dezan. Irakaslea taldeetatik pasatzen da. Bukaeran talde osoan aztertzen dira ateratako ideiak.



---

## 8. Ideiak laburtuz:

- Ikasleek banan banan egiten dute testu, bideo edo aurkezpen bateko 3-5 ideia nagusiak identifikatzeko. (Estrategia hau egin baino lehen ikasleek testu edo bideo horren laburpena egin dute etxean edo klasean)

- Binaka ideiak elkarri kontatzen dizkiote eta koordinatzen dira haien zerrendak bakarrik 2-4 ideia nagusi adierazteko.
  - Azkenik, bi bikote elkartzen dira ideiak bateratzeko eta zerrenda 1-2 ideiekin uzteko.  
*Adibideak eranskinean ikusi (Orr. 27)*
- 

### **9. Izenburuak idatzi:**

- Ekintza bat, istorio bat edo proiektu baten laburpenak praktikan jartzeko egin daiteke. Eman izenburuen adibideak. Ikasleek, binaka, izenburu bat idazten dute ekintza baterako.
  - Izenburuak komunean jartzen dituzte eta egokiena aukeratzen dute.
- 

### **10. Problema bat bidali:**

- Talde batek beste talde bati galdera bat bidaltzen dio.
  - Irtenbidea edo erantzuna bilatzen dute eta berriz jatorrizko taldeari pasatzen diote.  
Azterketa baten birpasorako balio du.
- 

### **11. Binakako laguntza:**

Ikasleek launaka lan egiten dute baina bi bikote eginez taldean. Adibidez, matematika klasean problema-orria binaka banatzen da.

- Bikotearen kide batek problema ebazten du, bestea laguntzaile dago eta animatzen du. Laguntzaileak informazio gehigarria du laguntzeko. Lehenengo problema eginda dagoenean paperak aldatzen dira.
  - Bi problema ebaztean, launakako taldeak egindakoa aztertzen dute ea ados dauden.
- 

### **12. Ikaskideei kontsultatu:**

Ikasle guztiek badute ariketa-orri berdina. Badago ontzi handi bat talde bakoitzaren erdian, eta ikasleak hasten dira boligrafoa ontzian uzten.

- Boligrafo guztiak hor daudela, lehendabizi galderaren erantzuna ahoz komentatzen dute.



- Kide guztiak prest daudenean, boligrafoa hartzen dute ontzietatik eta ixil-ixilik erantzuna idazten dute (ikasle heldu berriek sinbolo bat, marrazki bat edo grafiko bat egin dezakete edo kide laguntzaile batekin lan egin dezakete).
  - Prozesu hau errepikatzen dute hurrengo galderekin.
- 

### 13. Solas-sareak

- Ikasleak hasten dira binaka elkarri ideiak kontatzen eta gero talde handiagoak biltzen dira.
  - Lehendabizi, ikasleek banan argudioak garatu behar dituzte gai baten alde zein aurka. Honetarako testu batez baliatu gaitzke.
  - Binaka haien ideiak konparatzen dituzte eta konklusioa bat osatu behar dute haien ikuspuntutik.
  - Bi bikote elkartzen dira haien ideiak konparatzeko eta zer ikuspunturen alde dauden erabakitzeko.
  - Erabili 3.10.2 Grafiko antolatzaileak-Eztabaida sarea teknika hau lantzeko.
- 

### 14. Elkarrekiko tutoretza

Elkarrekin lan egiteko bikoteak osatzen dira. Estrategia bat, ataza bat edo eduki bat menperatzen duten ikasleek beste ikaskideei irakasten die. Batzuetan hizkuntza bera konpartitzen duten ikasleen artean egin daiteke edo hizkuntza edo arloko eredu onak diren ikasleekin osatu daitezke bikoteak.

---

### 15. Birpasoa elkarrekin

Klasean landutako gai bat birpasatzeko balio du.

- Ikasleei erantzun bat ematen zaie eta erantzun horri dagozkion galdera posibleak eman behar dituzte. Ikasleek ahalik eta galdera gehien pentsatzen dute. (Hirunaka lan egin dezakete fase honetan.) Adibidez: *Lurra* bada erantzuna, zeintzuk dira galdera posibleak?  
*Eguzkiaren inguruan ibiltzeaz gain, zer planeta dabil biraka bere ardatzean?*  
*Zein planeta dago eguzkitik 149.600.000 kilometrotara?*
- Ikasleek emandako galderak denon artean aztertzen dira.




---

## TALDE OSOAN

---

### 1. Berriketa zirkuluan:


- Ikasleak bi zirkuru konzentrikoetan elkartzen dira begiz begi eserita.
- Denbora dute egindako galdera bati buruz hitz egiteko.
- Seinale bat entzunda, kanpoko ikasleak ezkerrera leku bat mugitzen dira. Orain ikasleek badute beste kide bat hitz egiteko.
- Prozesua jarraitzen da buelta osoa egin arte.



---

### 2. Zirkulu barruko zirkulua:

- Ikasleek eztabaida batean parte hartzen dute bi zirkulu erabiliz.
- Zirkulu barruko ikasleek dakitena edo gai bati buruz aurkitu dutena kontatzen dute. Kanpoko zirkuluan daudenek oharrak hartzen dituzte eta entzuten ari direnaren hausnarketa egiten dute.
- Gero ideia eta informazio berriak komentatzen dituzte eta ulertu ez dutenari buruzko galderak planteatzen dituzte. Azkenik, paperak aldatzen dira eta barruko zirkulu berria gai berri batekin hasten da.



---

### 3. Lau txokoak:

- Galdera bat planteatzen da. Idatzi galdera horren lau erantzun posibleak txoko bakoitzean erantzun bat uzteko. Taldeak osatzen dira eta talde bakoitzak kolore bat du.
- Taldeak pasatzen dira txoko guztietatik beraien ideiak gehitzen. Denbora zehaztu behar da hasi baino lehen.
- Beste aukera bat izan daiteke txokorik gogokoena aukeratzea talde horretan erantzuna lantzeko.
- Beste aldaketa bat egin daiteke txokoak banatzen baditugu hurrengo lau kategoriekin: Erabat ados, ados, ez ados, inolaz ere ados. *Adibideak eranskinean ikusi (Orr. 28)*



---

### 4. Galdera-kutxa:

- Zehaztu leku bat gelan ikasleek erantzun gabe dituzten galderak jartzeko. Hainbat gairi, testuri, idazleri buruz izan daitezke. Ikasle batek galdera bat hartu dezake ikertzeko eta erantzuteko talde osoaren aurrean..



---

### 5. Klasean biraka:

Ikasleak launaka elkartzen dira, ikasle bakoitzak zenbaki bat du (1-4).

- Talde zirkuluak gela inguruan jartzen dira.
  - Galdera bat proiektorean azaltzen da taldeka eztabaidatzeko.
  - Taldean eztabaidatu ondoren zenbaki bat aukeratzen da eta zenbaki hori duten kideak hurrengo taldera pasatzen dira.
  - Eztabaidatutako ideiak azaltzen dituzte talde berrian.
- Prozesua jarraitzen da galdera guztiak eztabaidatu arte.

---

## 6. Parte hartzeko zenbait teknika:

Ikasleen parte-hartzea eskatzeko teknikak dira. Irakasleak galdera bat egin ondoren erabili daitezke.

- **Karta sorta:** Irakasleak ikasleen izenekin karta sorta bat egin dezake eta karta bat atera dezake ikasle baten izenarekin erantzun dezan.
- **Beste ikasle bat aukeratu:** Beste aukera bat izan daiteke ikasle baten izena esatea eta aukera ematea ikasle horrek beste ikasle baten izena esateko berak erantzun dezan.
- **Objektu bat pasatu** daiteke zirkuluan zehar. Objektua duen ikasleak hitz egin dezake eta besteek bitartean entzuten diote. Irakasleak bukatzen duenean edo ez badu memento horretan hitz egin nahi beste pertsona bati pasatu ahal dio objektua. Ikasle guztiek izan behar dute aukera objektua behin izateko ikasle batzuk bigarren txanda izan baino lehen.

---

## 7. Aurkezpenak:

Ikasle asko deseroso sentitu daitezke gelan aurkezpenak egitean. Zenbait teknika erabiliz saiatu gaitzke gelako aurkezpenak hobetzen: adibidez; aurkezpen ahul bat erakutsiz eta zuzenduz, aurkezpen egoki bat modelatuz eta ikasle eta irakaslearen elkarlana bultzatuz. Ikasle guztien artean zerrenda egin dezakete eta zerrenda hori kontrol-zerrenda bezala erabili ahal da taldeen aurkezpenak baloratzeko:

### Nola hobetu dezakegu gure aurkezpena?

- Hasieran gaia eta aurkezpenaren asmoa esan
- Aurkezpenaren zatika antolatu
- Entzuleek ulertzen duten egiaztatu
- Irudi bidezko laguntza sartu
- Errepikatu eta parafraseatu
- Bukaeran laburpena txiki bat egin
-





## **ERANSKINA: ARLOETAN ERABILITAKO ADIBIDE BATZUK**




1. PENTSATU-ELKARTU-KONPARTITU: MATEMATIKA KLASEAN ERABILITA

Erabili teknika hau Matematika gai askorekin. Adibidez:

Problemak irakurtzen eta ulertzen laguntzeko:

	<p>Banaka pentsatu eta bete (3-5 minutu):</p> <table border="1"><tr><td><b>Zer datu ezagutzen dut probleman?</b></td></tr><tr><td>“Zer hitz edo ideia ez dut ulertzen?”:</td></tr><tr><td><b>Egoera adierazi dezaket irudi batekin edo manipulatzeko materialekin?</b></td></tr><tr><td></td></tr><tr><td><b>Zer eskatzen dit problema?</b></td></tr><tr><td></td></tr><tr><td><b>Behar ez duzun daturik ezabatu.</b></td></tr><tr><td></td></tr></table>	<b>Zer datu ezagutzen dut probleman?</b>	“Zer hitz edo ideia ez dut ulertzen?”:	<b>Egoera adierazi dezaket irudi batekin edo manipulatzeko materialekin?</b>		<b>Zer eskatzen dit problema?</b>		<b>Behar ez duzun daturik ezabatu.</b>	
<b>Zer datu ezagutzen dut probleman?</b>									
“Zer hitz edo ideia ez dut ulertzen?”:									
<b>Egoera adierazi dezaket irudi batekin edo manipulatzeko materialekin?</b>									
<b>Zer eskatzen dit problema?</b>									
<b>Behar ez duzun daturik ezabatu.</b>									
	<p>Ikaskidearekin komentatu (3-5 minutu):</p> <p>Taula konparatu eta erabaki zer estrategia erabiliko duzuen problema ebazteko.</p>								

	<p>Txandaka ideiak esan talde handian (3-4 minutu)</p>
---	--

**Matematika adibideak: Elkartu aurretik banaka pentsatzen hasteko laginak:**

- Pentsatu hiru gauza \_\_\_\_\_(a)ri buruz. (adib. Progresio geometrikoa).
- Bost minututan, zer dakizu \_\_\_\_\_ (a)ri buruz ?. (adib. triangeluak).
- Idatzi bere definizioa: \_\_\_\_\_. (adib. erronbo).
- Zer desberdintasun dago bien artean: \_\_\_\_\_? (adib. zenbaki arrazionalak eta zenbaki irrazionalak).
- Zer da berdina eta zer desberdina bien artean: \_\_\_\_\_? (adib. batezbestekoa eta mediana).
- Pentsatu forma desberdinak hau azaltzeko? (adib.  $-7$  eta  $+5$  aren batuketa)
- Proiektagailuan diagrama bat ikusiko duzu. Gero diagrama desagertuko da. Idatzi gogoratzen duzuna.
- Irakurri hurrengo instrukzioak eta azpimarratu ulertzen ez duzuna.
- Irakurri hurrengo instrukzioak eta berridatzi modu errazago batean .
- Pentsatu azken egunetan egindako ekintzetan. Laburtu ikasitako kontzeptuak eta esan argi ez daudenak.

# 1. PENTSATU-ELKARTU-KONPARTITU: NATUR ZIENTZETAKO KLASEAN ERABILITA

## Adibide batzuk:

### Aldez aurretiko ezagupena aktibatzeko:

- Zeintzuk dira zelula baten zatiak?
- Zer desberdintasun dago landare zelula eta animalia zelulen artean?
- Zer desberdintasun dago sustantzia puroen eta nahasturen artean?

### Uste okerrak zuzentzeko:

- Urak 100° C-tan irakiten du.
- Aldaketa kimikoak ez dira aldagarriak.
- Urak elektrizitatea gidatzen du
- Mitosia eta zelula zikloa gauza bera da.

### Hipotesiak formulatzeko:

- Formulatu hipotesi bat lurraren Phren eraginak landare baten hazkundean azaltzeko..

### Ikerketa bat disenatzeko:

- Ikerketa bat diseinatu grabitateagatik azelerazioa neurtzeko.

### Kontzeptuak birpasatzeko:

- Nitrogenoaren zikloa deskribatu.

### Gai bat aztertzeko:

- Zein da modurik onena elektrizitatea sortzeko isolatuta dagoen etxe baterako.


## Talde txikietan

### 3. TALDEKIDEEN ZEREGINAK: TALDEKIDEENTZAKO LAGUNTZA

Kide bakoitzak taldeko lanean erabili dezakeen zenbait hizkuntza-eredu:

<i>Eztabaida-zuzendaria</i> <ul style="list-style-type: none"><li>○ Denok ulertzen duzue egiten ari garena?</li><li>○ Ateratzen ari gara gure gaitik. Goazen harira</li><li>○ Bat zatozte? = Ados zaudete? = Konforme ?</li></ul>
<i>Ilustratzailea</i> <ul style="list-style-type: none"><li>○ Zer grafiko mota erabili ahal dugu?</li><li>○ Zer agertuko da irudi honetan?</li><li>○ Irudi hau aproposa iruditzen zaizue?</li></ul>
<i>Konektorea</i> <ul style="list-style-type: none"><li>○ Zer datorkizue burura hitz horrekin?</li><li>○ Nola lotu ahal dugu hori gazte-munduarekin</li><li>○ Zer erabilera du horrek gure errealitatean?</li></ul>
<i>Gai-egituratzailea</i> <ul style="list-style-type: none"><li>○ Hementxe dago behar dugun materiala. Nire ustez, hau begiratu beharko genuke.</li><li>○ _____ minutu geratzen zaizkigu.</li><li>○ Zerekin hasiko gara?</li></ul>
<i>Erreportaria</i> <ul style="list-style-type: none"><li>○ Birpasatu ditzagun oharrak.</li><li>○ Aurkepena egin aurretik zerbait gehitu nahi duzue?</li><li>○ Nola egin ahal dugu aurkezpena?</li></ul>
<i>Zalantza-argitzailea</i> <ul style="list-style-type: none"><li>○ Zer hiztegi ez da ulertzen gai honetan?</li><li>○ Zer ideia ez da ulertzen?</li><li>○ Nola argituko dugu kontzeptu hau?</li></ul>

Nola sentitu zara taldeko paper honetan?



— Batere eroso

Oso eroso —

### 4. “CONSENSUS”- ELKARLANA: MATEMATIKA KLASEAN ERABILITA

**Matematika adibidea:**

Ikasleak talde txikietan banatuta daude. Lehendabizi, ikasleek banaka gai bati buruz pentsatzen dute eta ikasle bakoitzari dagokion laukiaren zatian erantzuna idazten dute. Gero ikasleek ideiak

elkarri kontatzen dizkiote eta adostu behar dute zer ideiarekin dauden denok konforme laukiaren erdian idazteko.

Matematikan erabili daiteke helburu askorako:


- Ikasleak bultzatzeko kontzeptu/gai bati buruz ideiak eztabaidatzera eta adostasunera heltzera .
- Ikasleen artean alde aurretiko ezagupenaren konpartitzea aktibatzeke.
- Ikasleei problemak ebazteko teknikak konpartitzen laguntzeko.
- Birpasoa eta elkarrekiko laguntza bultzatzeko.
- Taldeka oharrak hartzeko bideo edo ahozko aurkezpena bitartean.

Beste aukera bat da alde bakoitzean gai ezberdin bat lantzea eta gero taldeek biratzea.

Talde txikiak osatzeko kontuan izango dugu ikasleen ikasteko estiloak eta elkarreragina, gaiaren iaioitasuna, eta beste ezaugarri batzuk.

**Hizkuntza berria ikasten ari diren ikasleek:**

- ❖ Azalpena eman beharrean ikasleek adibideak, marrazkiak, diagramak...erabili ahal dituzte bere ideiak eta ezagupenak adierazteko, ondorengo adibidean ikusten den bezala. Ikasle batek definizioa eman beharrean progresio aritmetikaren adibideak eman ditu (2-4-6-8...). Adibide horiek taldean erabili dituzte definizioa borobiltzeko.



#### 4. “CONSENSUS”- ELKARLANA: NATUR ZIENTZETAKO KLASEAN ERABILITA

Ikasleak talde txikietan banatuta daude. Lehendabizi, ikasleek banaka gai bati buruz pentsatzen dute eta ikasle bakoitzari dagokion laukiaren zatian erantzuna idazten dute. Gero ikasleek ideiak elkarri kontatzen dizkiote eta adostu behar dute zer ideiarekin dauden denok konforme laukiaren erdian idazteko.

Zientzietan erabili daiteke helburu askorako:


- Aldez aurretiko ezagupena aktibatzeko.
- Uste okerrak zuzentzeko aurrera jarraitu baino lehen.
- Ideia baten ulermena ebaluatzeko.
- Gai berri baten ideia-jasa egiteko.
- Ikerketa bat diseinatzeko.

Beste aukera bat da alde bakoitzean gai ezberdin bat lantzea eta gero taldeek biratzea.

Talde txikiak osatzeko kontuan izango dugu ikasleen ikasteko estiloak eta elkarreragina, gaiaren iaioitasuna, eta beste ezaugarri batzuk.

## Hizkuntza berria ikasten ari diren ikasleek:

- ❖ *Azalpena eman beharrean ikasleek adibideak, marrazkiak, diagramak...erabili ahal dituzte bere ideiak eta ezagupenak adierazteko, ondorengo adibidean ikusten den bezala. Ikasle batek idatziz azaldu beharrean marrazkiak erabili ditu dakiena adierazteko. Gero ahoz kontatu du bere taldean.*



Eskuinaldeko ikasleak **marrazkiak** erabili ditu teoria zelularraz dakiena adierazteko irakas-hizkuntza ikasle helduberria baita .



	Zelula oinarrizko bizitza unitatea da.
	Zelula guztiak beste zelula batetik sortuak dira



---

### 13. IDEIAK LABURTUZ:

**Zure kaxa, 3-5 laburpen ideiak idatzi txartel hauetan.**

EMBED PBrush    EMBED PBrush    EMBED PBrush



**Binaka, zure laburpen ideiak konpartitu eta solasaren bidez, 2-4 ideiekin geratu.**

EMBED PBrush    EMBED PBrush




**Launaka, mintzatu eta zerrenda gutxitu. Utzi 1-2 ideia talde osoan komentatzeko.**

EMBED PBrush

1. Lau txokoak (egokitzapena)

**Matematika adibidea:**

Ikasleak alde batera ala bestera doaz baieztapena frogatzera.



Ikasleek antzeko esaldiak frogatu ditzakete ea egia ala gezurra diren:

Karratuak laukizuzenak dira.

Paralelogramo guztiak karratuak dira.

Trapezioak paralelogramoak dira.

Karratuak erronboak dira.